

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko apirilaren 30etik maiatzaren 5erako** astea.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/04/30

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Jabetzako, Merkataritzako eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoa.** - Ebazpena, 2018ko apirilaren 9koa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, bahitura-idatzoharren iraungipenaren eta horrek ondoren etor daitezkeen kargen ezeztapenetan izan ditzakeen ondorioen gainean Jabetzako, Merkataritzako eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak formulatutako kontsulta lotesleari buruzkoa. [5870 xedapena - 9 or.](#)

2018/05/01

- **ENERGÍA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALEKO MINISTERIOA. – Hidrokarburoak.** - 235/2018 Errege Dekretua, apirilaren 27koa, zeinaren bidez ezartzen diren kalkulatzeko metodoak eta informazio-betekizunak, erregaien berotegi-efektuko gasen isurpenen intentsitateari eta garraioko energiari dagozkienak; azaroaren 4ko 1597/2011 Errege Dekretua aldatzen da. Errege-dekretu horrek arautzen ditu bioerregai eta biolikidoetarako iraunkortasun-irizpideak, Iraunkortasuna Egiaztatzeko Sistema Nazionala eta bioerregai batzuen balio bikoitza haien kontaketarako; eta bioerregai aurreratuen salmentarako edo kontsumorako gutxi gorabeherako helburu bat ezartzen da. [5890 xedapena - 36 or.](#)

2018/05/02

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.** - HFP/441/2018 Agindua, apirilaren 26koa. Honen bidez, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko ereduak onartzen dira, hain zuzen establezimendu iraunkorrei eta atzerrian eratu eta lurralde espainiarrean presentzia duten errenta esleipeneko erregimenera bildutako entitateei dagokiena, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zerga-aldietarako; era berean, aitortzeko eta ordaintzeko prozedurari buruzko jarraibideak ematen dira eta elektronikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dira, eta azaroaren 13ko HFP/227/2017 Aginduaren bidez onartutako 222 eredua, «Sozietateen gaineko zerga. Bateratze fiskaleko araubidea. Ordainketa zatikatua», aldatzen da. [5937 xedapena - 181 or.](#)

2018/05/04

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOA. -Animalien osasuna.** - 2018ko apirilaren 12ko Ebazpena, Nekazaritza Ekoizpenaren Osasun Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez animalien gaixotasunak desagerrarazi, kontrolatu eta zaintzeko 2018ko programa nazionalak argitaratu diren. [6037 xedapena - 1 or.](#)
- **OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. - Zerbitzu-katalogoak.** - 2018ko apirilaren 18ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren zerbitzu-katalogoaren eguneratzea onartzen den. [6038 xedapena - 1 or.](#)

2018/05/05

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - Lanbide-gaixotasunak.** - 257/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretua aldatzen den (azken horrek Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen taula onartzen zuen eta haiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen zituen). [6046 xedapena - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/05/04

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA. – Huts-Zuzenketa,** honako dekretu honena: «51/2018 Dekretua, apirilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2019. urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. [2399 xedapena – 1 or.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

mutualLEX

9/2018 Zk

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO